



## TXAPELPUNK "VAYA FULL!!"

Txapelpunk taldeak **lñigito** Arrasate musikariaren gidaritzapean eman ditu urrats guztiak **Lekeitioko** itsasoaren babesean eta gordelekuan. lñigito da taldearen arima, lñigito da taldearen bihotza, eta, berarekin doazenak, bihotz horrek egin beharrekoak ongi egiteko gorputzaren beste atal guztiak. Txapelpunk edo Txapel edo lñigito. lñigito Etsaiak hamabost urte zituela sartu zen taldean. Etsaiak eta Txapelpunk taldeetan eman eta banatu du bizitza. Musikaz betetako bizitza. Beti kantuak buruan, beti melodia bat mingain puntan, beti lelo bat xuxurlatuko dizu berarengana hurbilduz gero. Txapelpunk beti kantuan. Txapelpunk taldearen laugarren diskoak "¡Vaya full!" izena darama. 2009ko martxoan eta apirilean grabatu eta nahastu da Mungia (Bizkaia) **Lamina** estudioetan, **Jose Lastraren** eta **Natxo Libertyren** laguntzaileen atala luzea da; hainbat musikari pasatu dira estudioetatik. **Manuk (Fritanga)** diskoan agertzen diren baxu guztiak grabatu ditu. **Keu Agirretxea (Uek)**: ahotsak "Besos de kubata" eta gitarra akustikoa "Juantxo Billa" abestietan. **Hodei (Des-Kontrol)**: ahotsak "Fatxa" abestian. **Podri**: ahotsak "Es el punk" abestian. **Ander (saxoa)**, **Ibon (tronpetea)** eta **Joana (Skasak)** (tronboia): haizeak "Euskal Herria, Buruak dio" abestian. **Ibon (Skasak)**: tronpetea "Juantxo Billa" abestian. **Ustaritz, Joseba Garmendia** eta **lñigo Velez de Mendizabal (Athletic)** futbol arloaz txertatutako koroak egin dituzte "Euskal Herria" abestian. Txapelpunk taldeak bere laugarren lanean (¡Vaya full!) tinko jarraitzen du aurreko diskoetan hartutako bidea. Txapelpunk taldeak punk-rock estiloa jorratzen du, nahiz eta beste kutxuko musiken eragina duen. Dena den, Txapelpunk taldearen diskorik gehiegi urruntzen. Punk azkarra, punk sutua, abiadura handiko punk, melodiaz lepo datorren punka, melodia itsaskorrez betetako punka. Gitarrek berebiziko garrantzia izan arren, nagusitasuna melodiek daramate. Punk rocka batzutan skarekin nahastuta (haize eta guzti), punka eta hardcorea, punka mexikar erara atondua. Txapelpunk inoiz baino punkiago dator hitzetan. Zuzenak, garbiak, zorrotzak eta gardenak arlo sozialari dagozkionez. Maitasun kontu nahikoa datoz eta hemen ironia, alaitasuna eta graziarekin idatzitako kantuak daude. Txapelpunk taldearen diskorik zuzenaren aurrean gaude.

### Jokoa ez omen da errenta. Txapelpunk taldeak "full" jokoa dauka?

Txapelpunk taldea rock jokua errenta ludopata da, baina 80ko hamarkadako rockarena. Dena den, esan beharrekoa dut ez dudala ia musikarik entzuten. Entzuten dudana apurra Txapelpunk eta Etsaiak taldeak dira. Inork nitaz egozentrikoa naizela esango du, bost axola niri, ordea. MCD taldearen "Barrenkalle" edo RIP taldearen "Enamorado de la muerte" entzuten badut tabernan nagoela, burua galtzen dut.

### Amodio kantu pare bat baina inoiz baino egur gehiago banatu duzu?

Talde mordoan dago ez duena maitasunaren atala jorratzen edo azal-azaletik egiten duena. Maitasuna bizitzaren zati bat da. Nor ez da erori maitasunaren sarean inoiz? Nik era honetan azaltzen dut: berdin dio "txuparen" larriaren gogortasunak, Kupidoren geziek ziztu bizian zulatzen dute. Lau diskoetatik bat aukeratzea ez da samurra, bakoitza nire bizitzaren une desberdinetan egin dut eta uanean uneko gogoraldiarekin araberakoa da. Egin kontu, musikari batentzat disko bat argitaratzea ume bat izatea bezalakoa da, eta nire moduko mutilzahar batentzat momentu berezia da. Egunen batean hilen naiz baina nire kantuek hor iraungo dute. Hilezkorak dira, betierekoak. "Vaya full" diskoa entzuten dudanean bizarrak zutik jartzen zaizkit, eta baita beste zerbait ere. Nire ustez, disko osoa da, eta askotarikoa. Hard-core, punk, ska-reggae, denetarik du, rantxera tankerako bat barne. Abesti bat sortzen dudanean, prestatzen dut, kentzen dut handik, jartzen dut hemendik, eta horrela nabil zirri egiten didana aurkitu arte. Gero, entsaio-gelan taldekideei erakusten diet, eta, normalki,

txunditurik geratzen dira. Horrek guztiak sorkuntza alorra erraztu eta eramangarriagoa egiten du. Hitzei dagokienez denetarik dago. "Lekeitxo bizirik": antzar egunean antzarrak gu gara, tabernarik taberna burua galtzera. "Es el punk": zorrotik atera dezakezu gandoarra, erakutsi harro edo bihotzean eraman gorderik. "EH": ikusi nahi ditugu, behin eta betiko, gure hamaika mutil, mundu guztixen kontra. "Besos de kubata": yes, baietz, esaidazu wi, esaidazu me and youk berriro egingo dugula. "Loko kuerdo": ez da lagunik, ez zure jainkorik, ez iraganik, ez etorkizunik, soilik gaurkoa esistitzen da. "Juantxo Billa": talde irabazlea eta galtzailea gara, irabazi eta galdu; baina menderatzea da irakatsi digutena. "Hipotekado": lasai lagun, ez da ezer gertatzen, ordaintzeko bizitza eta heriotza guztia duzu. "Fatxa": zure barrenean diktadoreak bizirik segitzen du. "Palestina": preso daude Israel deitzen den espetxean. "Primera vez": zuk zirri bat, nik beste bat eta horrenbeste zirriekin gori-gori paratu gara. "Mi vida es un show": bizitza heriotza da. "Kondeno la violencia": Irakeko gudan milaka hildako egon dira, gaitzetsi behar dutenek ez dute gaitzetsi. "Buruak dio": zu zeu ere izan parte. "Tus tús": zure zera zureak ikusi nahi ditut eta baita zure ahoaren eta ezpainen irribarra ere niri irribarre egiten.

### Bikote desberdinetan sinesten duzu? Etsaiak, batzuetan. Besteetan, berriz Txapelpunk. Joko kontua?

Bai. Rock kontuetan poligamoa naizela esango dut. Sarri galdetzen didate ea zein nahiago dudana, Etsaiak ala Txapelpunk. Etsaiak taldean 15 edo 16 urte nituela sartu nintzen (orain 38 ditut). Irudika dezakezu zer ez dugun elkarrekin pasa (entsaioak, zuzenekoak, birak, diskoak...). Denbora honetan guztian laguntasun lotura handia sortu da. Oso une politik eta atseginak igaro ditugu, baina noizbehinkako haserreak ere bai. Gure artean eztabaidatu izan dugu gauza batengatik edo besterengatik, betikoa. Haserretzen direnek elkar maite dute. Uste dut zerbait ongi badoa zerbait gaizki doala. Orainxe bertan Txapelpunk taldea ari zait grina ematen. Diskoaren kaleratzeak eta sorkuntzan eman ditudan bi urteek ere zeresan handia dute. Taldekideak ni baino motibatuago daudela esan daiteke. Toki bateriajotzailea taldean sartu denetik, pilak jarri dizkigu. Inoiz baino gehiago entsaiatzen dugu eta bikain pasatzen dugu lokalean. Laburbilduz, Etsaiak eta Txapelpunk taldeetako kideok une gozoan gaude. Aurten elkarrekin kontzertu pare bat ditugu; hala eta guztiz ere, esan behar dut Etsaiak taldeak gutxiago jotzea erabaki dugula, Txapelpunk topera ibiko delako uda honetan.

**lñigito**: ahotsa  
**Atrofi**: baxua  
**Unai**: gitarra  
**Toki**: bateria  
**Nako**: zuzeneko teknikaria  
**Aitortxu**: myspace diseinua eta argazkilaria

Txapelpunk. "Txapelpunk" (Gor, 2000)  
 Txapelpunk. "Bla, bla, bla. Stop" (Oihuka, 2002)  
 Txapel. "Tonto el que lo lea" (Oihuka, 2004)

ritxi aizpuru (2009ko maiatzaren 12a)

